

TXOSTENA

22



BIOTERRA

2025

Euskadiko EKO azoka

ekainak 6 · 7 · 8

FICOBA

INFORMAZIO OROKORRA

BIOTERRA 2025

Edizioa: 22

Data: 2025eko ekainak 6-7-8

Bisita kopurua: 9.367

Erakusketari kopurua: 122

Erakusketa eremua: 1.448 m²

Ordutegia:

ostirala eta larunbata: 10:00 - 20:00

igandea: 10:00 - 19:00

2025eko ekainaren 6, 7 eta 8an ospatu da Bioterra azokaren 22. edizioa, Euskadiko EKO azoka.

Aurten, arreta berezia eskaini zaio oliba olio birjina estrari, protagonista izan baita 9 ekoizle-enpresaren bidez, jatorri eta oliba-barietate desberdinekin. Edizio berezi honen xehetasunetan sakonduko dugu horri eskainitako ondorengo atal batean.

Azokak elikadura ekologikoan, kosmetika ekologikoan, bioeraikuntzan, energia berriztagarrietan eta osasuna eta ongizatea sustatzen duten produktu eta zerbitzuetan interesa duen publikoa bildu du.

Jarduera-programak gai askotarikoak jorratu ditu, eta helduentzako zein haurrentzako tailer eta jarduerak ere izan dira, guztira 60 jarduera baino gehiago eskainiz bertaratutako publikoari.

Sarrera doakoa izan da, aldez aurretik izena emanda, bai online azokaren aurretik, bai erakusketazokan bertan.



ERAKUSKETARIAK

Bioterraren 22. edizioak 122 erakusketari izan ditu, FICOBako 3 pabiloietan eta kanpoaldeko gunean banatuak, haien sektore eta jarduera eremuaren arabera.

Azpimarratzekoa da erakusketarien %47,2a Euskadi eta Nafarroa kanpokoak izan direla. Hauen artean, honako autonomia erkidego hauek nabarmentzen dira: Madril (%9,3), Katalunia (%7,4), Andaluzia (%5,6) eta Gaztela eta Leon (%5,6).

Azokan parte hartu duten enpresen %52,8 Euskadi edo Nafarroakoak dira, eta haien banaketa honako hau izan da erakusketari guztien artean: enpresen %26 Gipuzkoatik etorri dira, %12 Bizkaitik, eta parte-hartzaileen ia %15 Nafarroakoak izan dira.

Datu hauek kontuan hartuta, berretsi egiten dugu Bioterrak erakartzeko duen gaitasuna, bereziki Euskadi eta Nafarroa kanpoko enpresak. Parte-hartzaileen ia erdia Euskadi edo Nafarroa kanpokoak izanik, Bioterrak balioa ematen dio lurraldeari, ez bakarrik Euskadiko EKO azoka erreferentea izateagatik, baita inguruko zerbitzu-enpresetan sortzen duen negozioaren bidez ere.

Erakusketarien

%67

azokaren
emaitzekin
pozik daude

Erakusketari izan diren enpresen %67k azokarekin pozik edo oso pozik daudela adierazi dute.

Azpimarratzekoa da parte hartu duten enpresen %79k 2025ean berriro azokan parte hartzeko interesa dutela.




ERAKUSKETARIEN LOGOAK



AZOKAREN PLANOA

BIOTERRA 2025



NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN KONTSEILUAK BIOTERRAN

Euskadi eta Nafarroako Nekazaritza Ekologikoaren Kontseilu Arautzaileak Bioterran egon dira.

CPAEN-NNPEK Nafarroako elikadura ekologikoa 7 ekoizle eta elaboratzaileen bitartez egon da ordezkatua: Pasta Martinelli, Gobeies, Erlandere, Tribal Trading, Ecoatarrabia, eta olio ekoizleak diren Fuente de Garos eta Ecológicos Aranda. Azken hauek Bioterra Olioa egitasmoaren baitako jardueretan ere parte hartu dute.



EKOLURRA - ENEEKek bere informazio-gune propioa izan du Bioterran, Kontseiluaren lana ezagutzera emateko eta ekoizpen ekologiko eta tokiko kontsumoaren garrantziaz informazioa zabaltzeko.

Kontseiluaren standarekin batera Euskadiko 4 ekoizle eta elaboratzaile egon dira: Onein Kontserbak, Mucha Kombucha, Berbelar Gaztak eta Daonaz Berakatz Beltza.

Aipatzekoa da Gipuzkoako ekoizle eta elaboratzaileek Lurralde Berdearen Oreaken Departamentuaren babesa izan dutela.



BESTE TALDE-PARTEHARTZEAK BIOTERRAN: EHKOLEKTIBOA ETA BLE

BLE (Biharko Lurraren Kolektiboa) eta EHKolektiboa elkarlanean aritu dira Bioterran, stand partekatu batean izan dira bi kolektiboak.

Euskal Herriko B.L.E elkarte nekazari eta herritar talde bat da, gizarte autonomoago, austeroago eta solidarioago baten alde lan egiten duena. Euskal Herriko iparraldean gertuko nekazaritza eta elikadura ekologikoa sustatzen duten ekimenak sustatzen dituzte.

EHKolektiboa, Euskal Herrian Agroekologia lantzen eta bultzatzen duen baserritar eta herritarren kolektiboa da. Euren baserrietatik, eta jendartearekin batera, guztiontzako elikadura osasuntsua eta eskuragarria egitea dute helburu; lurra, abere eta pertsona guztien errespetuan oinarriturik.



EMAUS

Emaus presente egon da Bioterrako 2. pabiloian, bigarren eskuari eskeinitako espazio batekin, non arropa eta osagarriak saldu diren.

Horrez gain, Emausek Biobeauty & Zero Zabor gunearen dekorazioaz ere arduratu da, berrerabilpenaren eta ekonomia zirkularraren printzipioen balioa nabarmenduz.



10 URTEZ ERAKUSKETARIAK IZAN DIREN ENPRESAK

Ekainaren 6 ostiraleko inaugurazio-ekitaldian, erakusketari gisa 10 urtez jarraian parte hartu duten enpresen leialtasuna saritzen duen saria banatu da.

Aurten, 10 urtez parte hartzearen saria jaso duten enpresak honako hauek izan dira: Teknableu, Ekidom, Nayadel eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Iraunkortasun Departamentua.



Bioterraza izeneko kanpokaldeko gune gastronomikoan elikadura ekologikoko proposamenak eskaini dira: sukaldaritza begetariano eta peruarra (Foodtruck Quinoa), Galiziako haragi ekologikoz egindako hamburgerak (Galetruck) eta street food begetariano eta ekologikoa (Veggie Pita Point).





EGITARAUA ETA JARDUERAK

Bioterran 58 jarduera, hitzaldi eta tailer eskaini dira, eta guztira 2.251 pertsona parte hartu dute eskeinitako jarduera guzti hauetan.

Jarduerak hainbat gunetan gertatu dira:

Auditorium-a eta 1. aretoa izan dira interes orokorreko dibulgazio-hitzaldiak jasotzeko espazioak.

Eraikiz Gunean bioeraikuntzarekin, material jasangarriekin, energia berriztagarriekin eta antzeko gaiekin lotutako edukiak jorratu dira.

BioBeauty & Zero Zabor Gunea ongizateari buruzko hitzaldiak eta kosmetika naturalaren eta moda jasangarriaren inguruko tailer praktikoak egiteko espazioa izan da.

Sukaldean sukaldaritzari eskeinitako gunea izan da, non osasungarri, dibertigarri eta ekologikoan sukaldatzen ikasi den.





Jakoba Errekondo-k informazioa eta jakituria partekatu zuen Igo Aretora bertaratu ziren bisitariekin



Jorge Otaegi de Arce, COAVN-eko arkitektoa, Eraikiz Gunean espazioan eman duen hitzaldian zehar



Garbiñe Larreak bere liburu berria aurkeztu zuen Biobeauty & Zero Zabor gunean



Itziar Bandrések elikagai ekologikoekin prestatutako menu oso bat prestatu zuen Sukaldean-en



Mattin-en tailerrak publiko gaztea baratzagintzara hurbiltzeko aukera paregabea izan ziren



Mandala Permaculturako Maxek lasto enkofratua egiten erakutsi gintuen



Aurtengo jarduera berrien artean, Pedro Domingo Almazor Iparraguirrek gidatutako Taichi saioa ospatu zen



Irene Aldaren eskutik igandean Yoga Day-a ospatu zen, 65 partehartzaileekin



BIOTERRA
OLIOA

Bioterrako berrikuntzen artean, Bioterra Oliao edizio berezia aipatu nahi dugu, oliba olio birjina estra ekologikoari eskainitako gunea. Bioterran oso estimatua den produktua da, eta aurten bere inguruko kultura eta ezagutza balioan jartzea erabaki da, azokako olio barietateak hobeto ezagutzeko dastatze gidatuak eskainiz, besteak beste.

Hauek izan dira azokara bertaratu diren olio ekoizle enpresak:



Bioterrako 3 egunetan zehar, Javier Adot Andiñ-en eskutik oliba olio dastatze gidatuak egin dira, eta 140 pertsona baino gehiagok parte hartu dute dastatze hauetan. Horrez gain, Bioterra Oliao gune bereizi hau, olio-ekoizle enpresek hautatutako olioaren erakusketa batekin.

Espazio berri hau oso positiboki baloratu dute bai dastaketetan parte hartu duten bisitariek, bai Bioterraren barruan gune berri hau osatu duten olio ekoizle enpresek ere. Bioterrak Endanearen laguntza izan du espazioaren dekoraziorako.





EKO-OIZ TAILERRAK: GARAPEN JASANGARRIA, INGURUMENA ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

1go pabiloian garapen jasangarriari, ingurumenari eta energia berriztagarriei buruzko tailerrak egin dira, 6 urtetik gorako publikoari zuzenduta, eta Eko Oiz elkarteak gidatuta.

Tailer hauek 2030 Agendarekin eta GJH 17arekin (Garapen Jasangarrirako Helburua) lotutako edukiak jorratu dituzte, hain zuzen ere "Garatze bideak indartzea eta garapen jasangarrirako mundu mailako lankidetzak biziberritzea" helburuarekin.



BESTE JARDUERA BATZUK BIGARREN ESKUKO BIZIKLETEN MERKATUA | MERKA2DASOA

Ekimen hau Txingudiko Zerbitzuak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Iraunkortasun Departamentuarekin elkarlanean egin da, Ekonomia Zirkularra eta Mugikortasun Jasangarria sustatzeko helburuarekin. Hau da jarduera hau Bioterran egiten den bigarren aldia.

Aurten, bizikletak biltzeko zerbitzua eskaini da Ficoban, ekainaren 2tik 5a bitartean.

Guztira 50 bizikleta jarri dira ikusgai, eta horietatik 34 saldu dira.



PLANETA DOTS - JOSKINTZA JASANGARRIAREN KARABANA

Ehungintzaren industriadatortzen hondakinengatik kezkatutik, Lorenak eta Roserrek PLANETA DOTS izeneko marka sortu dute, erabilera ez duten ehunak lehengai gisa erabiliz jantzi eta osagarri berriak sortzeko.

Planeta Dots-en karabanan, Bioterra azokara gerturatutako pertsonen azokako oroigarri bat sortzeko aukera izan dute, erabilerarik gabeko ehunak berreskuratuz. Tailer hau doakoa izan da.



ELKARLANEKO MURALA

3. pabiloian, Bioterra bisitatu duten haurrentzako sormen-gune bat egon da, mural kolaboratibo batekin eta sormenarekin erlazioa duten beste aukera batzuekin.



ERAKUSKETA - FASHION REVOLUTION: JAN ETA JANTZI EGITEN DA

Elikadura-industria eta moda-industria dira ingurumena gehien kutsatzen duten sektoreetako bi. Elikadura-jarduerak hondakinak sortzen ditu, eta hondakin horiek CO2 bihurtu beharrean, beste zerbait bihurtu daitezke. Arropan bilakatu daitezke, agian? Bide horretan doa berrikuntza eta etorkizuna. Erakusketa hau aukera hauek irekitzen duten unibertsoaren islada dira.



ERAKUSKETA: HEGAZTI MIGRATZAILEAK - ARTEAN

Artean Espazioan artea eta naturaren arteko lotura modu indartsuan lantzen dute. Sentsibilizazioaren, eraldaketaren eta aldaketaren aldeko apustua egiten dute; horregatik, naturara hurbiltzen, hartaz ikasten, hura errespetatzen eta balioesten laguntzen dieten gaiak aukeratzen dituzte.

Azken hilabeteetan hegazti migratzaileak izan dituzte lanaren ardatz, eta Bioterra izan da sortutako proiektu artistiko horiek ikusgai jartzeko gunea.



MATER

Materrek bi jarduera garatu ditu Bioterrako programaren barruan: Zabor eta Bio erraldioen antzerkia, eta Itsas zaindaria izeneko ginkana, biak haurrei zuzendutakoak.



KOSMETIKA NATURALA ETA DIY - LOS TALLERES DE RUT Y LAIDA - RECICLA BIRZIKLATU

Aurten ere Recicla Birziklatu elkarteak Bioterran erakusketari gisa egon da, 1. pabiloian. Honetaz gain, Biobeauty Zero Zabor jarduera-programaren parte izan dira, kosmetika natural, DIY eta hondakin gabeko tailerrekin, "Los talleres de Rut y Laida"-ren eskutik.



TAILERRA: ETORKIZUNeko MATERIALAK - ORGANIC STUDIO

Arte eta zientzia uztartzen dituen tailer esperimentala izan da Organic Studio zuzendutakoa, etorkizuneko materialak hondakin organikoetatik abiatuta aztertu dituen, biomaterialak sortuz. Tailer honetan zehar, hondakin organikoak modu jasangarrian berrerabiliz bioplastikoak sortzen ikasi da.

Prozesu osoa irakatsi da jardueran zehar: azalak garbitzea, lehortzea, birrintzea eta egostea, besteak beste.



TAILERRA: PAINT BIKE - TXITA

Adin guztietako pertsonak, bereziki txikienak, parte hartu ahal izan dute "Paint Bike" jardueran, bizikleta eta artea uztartzen dituen ekintza, Txita enpresaren eskutik.



ZOZKETAK

Azokako egunetan bi zozketa egin dira egunero:

- EKOLURRA produktuen saski bat, 100 €-ko balioarekin.
- Azokan gastatzeko 100 €-ko erosketa-txartel bat.

Gainera, Instagram bidez egindako zozketetan parte hartu duten pertsonen artean, beste bi 100 €-ko erosketa-txartel zozkatu dira.





ANTOLAKUNTZA

ANTOLAKUNTZA BATZORDEA ETA ERAKUNDEEN BABESA

Bioterra 2025 FICOBako lan-talde profesionalak antolatu du, Antolakuntza Batzorde baten laguntzarekin, Erakustazokaren Araudiaren 2. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Antolatzaile Batzordeko kideak:

EKOLURRA / ENEEK – Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua

BLE – Biharko Lurraren Elkartea

Gipuzkoako Foru Aldundia – Iraunkortasun Departamentua

Arkmonia – Arkitektura Estudioa

COAVNGi – Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala – Iraunkortasun Batzordea

Bilibin Circular



Bioterra 2025 hurrengo erakundeen babesari esker ospatu da:



Azokan Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Iraunkortasun Sailaren presentzia nabarmendu nahi dugu, EEE-EVERen standaren bidez; baita Gipuzkoako Foru Aldundiko Iraunkortasun Saila eta Garraio Agintaritzarena, Mugikortasun, Turismo eta Lurralde Antolamendu Sailaren ordezkaritza gisa.

Energiaren Euskal Erakundeak berriz ere stand bat izan du Bioterra azokan, non asteburu osoan zehar Eusko Jaurlaritzaren apustua erakutsi duen energia berriztagarrien alde, Trantsizio Energetikoan aurrera egiteko eta ekonomia nahiz energia-kontsumoak deskarbonizatzeko tresna gisa.

Irantzu Allende Trantsizio Energetikorako sailburuordea Bioterrako inaugurazioan parte hartu du, eta honek nabarmendu duenez, "klima-erronkaren aurrean, Eusko Jaurlaritzatik herritarrak sentsibilizatzeko apustua egiten dugu, energia aurrezteko eta iturri berriztagarrietatik sortzeko, baita etxean, mugikortasunean, aisialdian edo kontsumoan ohitura iraunkorragoak barneratzeko ere."

Energia garbiak bultzatzeko neurrien artean, energia berriztagarria sortzeko sistemak ezartzeko laguntzak daude, bai autokontsumo elektriko zein termikorako. Herritarrek laguntza horiei buruzko informazio zuzena eskuratu ahal izan dute, eta datozen bi urteetarako 80 milioi euroko aurrekontua izango dute. Laguntza hauek energia sortu eta kontsumitzeko paradigma aldaketa sustatzen dute, izan ere, kontsumitzaileak beren beharrak asetzeko behar duten energia sistema berriztagarrien bidez ekoizten duten ekoizle bihurtzen dira.

Laguntza guzti hauek DESKARBONIZA programaren barruan daude; Eusko Jaurlaritzako Industria Sailaren lankidetzaren publiko-pribatuko plana da hau, eta helburua euskal ekonomiaren, ekoizpen-prozesuen eta energia-sistemaren deskarbonizazioa da. Bioterran zehar informazio hori guztia eskuragarri egon da.



KLIMA AZOKA | IHOBE - EVE

Ihobe eta EEEn eskutik antolatutako KLIMA AZOKA azoka bat izatetik haratago doa: esperientzia interaktiboa da, aldaketa klimatikoaren aurrean mobilizatzeko, hezteko eta kontzientziak esnatzeko helburua duena. Jolasen, tailerren eta dinamika parte-hartzaileen bidez, adin guztietako pertsonek modu atseginean deskubritu dute nola izan daitezkeen aldaketaren parte aktibo.

Klima Azokan, bisitariek hainbat karpa tematiko zeharkatu dituzte, non honako gai hauek jorratu diren: klima-aldaketa, etxeko ohiturak, mugikortasuna, aisialdia eta kontsumoa, klima-aldaketara egokitzea (LIFE IP Urban Klima 2050 proiektuaren bidez) eta lurzorua babestea. Jolas eta dinamika interaktiboen bidez, parte-hartzaile bakoitzak hausnartu ahal izan du ingurumen-inpaktua eta iraunkortasunaren aldeko konpromisoak.



Gipuzkoako Foru Aldundiak bi iraunkortasun-ardatz nagusiri buruzko informazio-standekin parte hartu du Bioterran : energia berriztagarriak eta mugikortasuna, Gipuzkoako garraio publikoaren erabilera sustatuz.





2025eko Bioterraren edizioa zoru berritua duten FICOBAko pabiloietan ospatu da. Honi esker **1.400 m²-ko erabilera bakarreko moketa erabiltzea saihestu da.**

Neurri hau eta gune komunetan berrerabil daitekeen alfonbra erabiltzeari esker, **74,6 tonako CO₂ isuriak saihestu dira.**


2025eko edizioan, Bioterrak **ERRONKA GARBIA** ziurtagiria lortzea du helburu, eta bere iraunkortasun-erronkak hondakinetan eta mugikortasunean zentratu dira.

Ziurtagiria lortuz gero, ekitaldiak zortzigarren aldiz jasoko luke kudeaketa iraunkorraren zigilu hau, eta horrek baieztatzen du azoka ez dela bizi- eta kontsumo-ohitura jasangarriak sustatzeko gunea soilik, baizik eta ingurumen-irizpide iraunkorrei jarraituz kudeatzen dela.



ERRONKA GARBIA
EVENTO AMBIENTALMENTE SOSTENIBLE

Bioterrara bertaratzen den publikoaren mugikortasuna ere funtsezko faktorea da ekitaldiaren ingurumen-inpaktua neurtzerakoan. Edizio honetan, %28 oinez edo bizikletaz joan da azokara, %14 garraio publikoan eta %58 autoz.






BISITARIAK


BISITARIEN JATORRIA

Bisitarien gehiengoa Gipuzkoakoa izan da (%80 inguru), Iparraldeko bisitariak jarraituak (%10 inguru). Bizkaitik, Arabatik, Nafarroatik eta estatuko beste probintzia batzuetatik etorritako pertsonak gainerako %10a osatu dute.

JATORRI OROKORRA



GIPUZKOAKO BISITARIAK | ESKUALDEKA




INKESTA

Azokako 3 egunetan zehar Bioterrara bertaratu direnei inkesta bat egin zaie, eta honako estimazioak lortu dira:


Nabarmendu behar da inkestatutako pertsonen %74k Bioterra beste edizio batzuetan ere bisitatu dutela, eta horrek publikoaren leialtasuna baieztatzen du. Iaz bezala, bisitari berriak erakartzeko gaitasuna ere berretsi da; izan ere, horiek guztien laurdena osatu dute (2022an, bisitarien %8k bakarrik bisitatzen zuten azoka lehen aldiz).

Balioan jarri nahi dugu azoka bisitatu dutenen %87 pozik edo oso pozik geratu dela Bioterrako edukiekin, eta inkestatutakoen %89k adierazi du 2026an Euskadiko azoka berdera itzuliko dela.


Bioterrara aurreko edizioren batean etorri zara?



Asebetetze maila



2026ean etorriko zara?



KALEAN EGINDAKO PUBLIZITATEA

Bioterrak publizitate- eta promozio-kanpaina sendoa izan du, bai formatu desberdinetako euskarri fisikoetan, bai kanal digitalen bidez.

Kanpaina presentzialean (offline) nabarmentzekoak dira honako ekintzak:

Iragarki-posterrak:

- 750 ale Donostia, Irun, Errenteria, Hernani, Astigarraga, Hendaia... bezalako kaleetan
- 300 Bilbon eta inguruan
- 300 Iruñean eta inguruan

Euskotren: treneko txartel-salmentako pantailetan (topoan) publizitatea eta bideo promozionala Bilboko Zazpikale/Casco Viejo geltokian

32 MUPI Donostiako autobus-markesinetan

32 MUPI Irungo autobus-markesinetan

2 lona Ficoban

Irudia aireportuetan: Hondarribian eta Bilbon

Txita (banaketa-trizikloa) Bioterraren irudiarekin pertsonalizatua







BIOTERRA
Ekainak 6 · 7 · 8 Junio
FICOBA

Euskadiko EKO azoka La feria ECO de Euskadi

DOAKO SARRERA

ENTRADA GRAUITA

EDIZIO BEREZIA: OLIBA OLIOA

Bioterrara, zatoz topoz!
A Bioterra, jven en tren!

euskotren

Euskadiko EKO azoka La feria ECO de Euskadi

POSTA BITARTEZKO BIDALKETAK ETA MAILAING KANPAINA

Posta bidezko bidalketa egin da azokarekin lotutako sektoreetako **124 establezimendu espezializatuetara**, Bioterraren iragarki-posterraren ale bana bidaliz establezimendu horietan promozioa egiteko.

Mailing-kanpaina:

6 newsletter bidali dira (publiko orokorarentzako eta profesionalentzako), 18.000 harremanetako datu-base eguneratuta (hizkuntza anitzetan: euskara-gaztelania / gaztelania / euskara-frantsesa / frantsesa), azoka baino hilabete bat lehenagotik hasita.



ekainak 6 · 7 · 8 junio

BIOTERRA 2025 FICOBA

Instagram Facebook Link

La feria ECO de Euskadi empieza mañana

120 empresas expositoras:
alimentación ecológica · cosmética ecológica
· salud y bienestar · energías renovables
· bioconstrucción

Bioterra oliaa: edición especial

Má de 60 propuestas de actividades y charlas

Una sala disponible para tus reuniones

CONSIGUE AQUÍ TU ACREDITACIÓN GRATUITA



EMPRESAS EXPOSITORAS

Kanpaina zehar bidalitako newsletterren adibide bat

PRENTSA IDATZIA

OROKORRA

BERRIA: PUBLIERREPORTAIA + IRAGARKIA

ESPECIALIZADA

- BIOECO ACTUAL: 3 txertatze
- COFENAT: txertatze 1
- MI HERBOLARIO: txertatze 1

ONLINEKO PRENTSA/BESTELAKO PORTALAK (OROKORRA ETA ESPEZIALIZATUA)

- BERRIA.COM
- ARGIA
- ECOHABITAR
- MI HERBOLARIO
- TXIKIS DEL BIDASOA

IRRATIA

- SER GIPUZKOA
- RADIO EUSKADI
- EUSKADI IRRATIA
- GAZTEA
- EUSKAL IRRATIAK (Gure Irratia, Antxeta Irratia, Xiberoko botza, Irulegiko Irratia, Amikuseko Irratia)



• BIDASOKO •
HITZA



• BIDASOKO •
HITZA

Sartu

egin sartuz
HITZA

ALBISTEAK

MULTIMEDIA

AGENDA

ZOKKETAK

ESKAINTZAK

DENDA

ADIMEN ARTIFIZIALA

ZERBITZU GIDA

EKONOMIA INGURUMENA

Bioterraren zaporea oliba olio ekologikoak bereizten du

Oliba olio ekologikoa da aurtengo produktu izarra eta haren bueltako hitzaldiak eta dastaketak egiten ari dira. Gaur ireki ditu ateak azokak eta igandera arte egongo dira 115 postuak.



HEDABIDEETAN LORTUTAKO INPAKTUAK

Bioterrak 90 inpaktu lortu ditu bere 22. edizioan:

EGUNKARIAK/ PRENTSA OROKORRA	22
IRRATIAK	19
WEBGUNEAK/ BLOGAK	49

BIDASOA

U no de los mensajes que no se repiten en cada edición de Bioterra se repite a veces, también en materia de sostenibilidad, el grado de amigabilidad que cada uno puede darles en sus propias tradiciones. Varios días después de la inauguración, se va avanzando en el tiempo que la feria ha estado suscitando millones de pequeños impactos positivos, aunque no pueda cuantificarse en cifras, según los reportes que circulan en la vida de muchos. Cuando hace más de dos décadas se empezaron a celebrar, Bioterra ya daba voz y refugio a quienes creaban con un mundo diferente y una sociedad más sostenible. Bioterra la ciudad oculta y ofrece un espacio más necesario que nunca, en el que se repite una filosofía ecológica, serena, pero decidida, basada en el conocimiento, el compromiso y la acción cotidiana.

Son palabras de la directora de la cita, Mireia González, que se encuentran ayer en la inauguración de la XXII edición. «Una gran feria por su carácter de Pueblo», como la definió la alcaldesa, Cristina Laborda, manteniendo una puerta abierta hoy y mañana. Más de un centenar de exposiciones se dan cita en las tres pabellones del recinto, una oferta que completa el itinerario de 20 actividades. Con todo ello, Bioterra «informa, inspira y transforma», y se reafirma como el mayor escaparate del sector ecológico en el centro, rodeado por Laborda.

Desde el Ayuntamiento, el equipo continúa su labor al respecto se reflejan en la presencia del vicepresidente del Gobierno Vasco y la Diputación de Gipuzkoa, Iñaki Alkate, vicepresidente de Transición Energética, en el acto en el que se repite una filosofía que cada edición de Bioterra y apuesta al «ver»

«Una vida igual de cómoda, pero más sostenible»

Bioterra. La feria ecológica de Euskadi inauguró ayer su XXII edición en Ficola, donde «informa, inspira y transforma» durante todo el fin de semana

JOANA OCHOITICO

Los visitantes pueden disfrutar de los stands de la feria

Exposición de hábitos más sostenibles

Los visitantes pueden disfrutar de los stands de la feria

Exposición de hábitos más sostenibles

Los visitantes pueden disfrutar de los stands de la feria

Exposición de hábitos más sostenibles

MERCADO

El AOVE toma el protagonismo en la feria ecológica de Euskadi

Bioterra 2025



ecoticias.com
el periódico verde

BBVA
Cuenta Online y Tarjeta Aquí:
Sin Comisiones y Sin Condiciones

Bioterra 2025: la 'feria ecológica' de referencia en Euskadi

Por Sandra M.G. — 27 de mayo de 2025 — Alimentos ecológicos



Producto ecológicoa erakusgai egongo dira. Ane Mendizabal Sarrigoi

Oliba olioa da Bioterrako urrezko izarra

Gaur hasiko da Bioterra produktu ekologikoen azoka eta ideia berdeen topagunea. Igandera bitarte, 70 jardueratik gora eta 115 postu topatuko ditu bisitariak.

© 2025 Bioterra. Todos los derechos reservados.

Gazteak On, eta Lahore Txingudi, Mala permakultural eta Hendala Koopek bultzatu dute.

Erakundeak

Aurtengo Bioterraren aurkezpenaren isan siren Cristina Laborda Urtarrilko alkatea, Jose Ignacio Asensio Jasangarritasun diputatua eta Azahara Dominguez Mugikortasuneko, Turismo eta Lurralde Antolaketa diputatua. Alkateak nabarmendu zuen Bioterrak bat egiten duela Irungo Udalaen politikekin, hain zuzen, mugikortasun eraginkorreko politikekin.

Dominguezek esan zuen 32,5 milioi euro mugitzen dituen azoka dela Bioterra, lazko datuei erreparatuta. Horrez gain, Mugikortasunaren postu bat egongo dela adierazi zuen, eta bertan Mugikortasunaren postuak instalatzen laguntzen aituko dira. Txartel anonimoak ere eskuratzeko aukera egongo da.



Asensioak azaldu zuen Gipuzkoako Iuzkuz Atlas berria aurkeztuko dutela azokan. Atlas horrekin gipuzkoarrek haien etxebizitzaren potentzial fotovoltaikoa zein den jakin, eta eguzki plaken instalazioak elkar ditzaizkeen energia eta diru aurrezpena kalkulatu ahal izango dute. «Energia demokra-

ONLINE KANPAINA

Online publizitate-kanpaina bat garatu da hiru ardatz nagusitan banatuta: programatutako erosketa, sare sozialak eta Google Search (SEM). Kanpaina hiru hizkuntzatan egin da: euskaraz, gazteleraz eta frantsesez. Honako hauek dira kanpaina honen jardunaren parametro orokor batzuk:

INPRESIOAK	8.420.553
ERABILTZAILE BAKARRAK	2.605.420
KLIKAK	125.598
BATAZ BESTEKO CTR (%)	1,49%


Estos son algunos de los banners utilizados:



EGUNEAN BEHIN

Egunean Behin eguneroko galdera-joko bat proposatzen duen aplikazioa da, 10 galdera orokorrekin. Bioterra izan da 05/27tik 06/02ra bitarteko asteko babeslea, eta, horri esker, Euskadiko azokarik ekologikoena aplikazioko erabiltzaileen artean ezagutzera eman da.

Bioterraren bannerra aplikazioan presente egon da aste osoan zehar, eta maiatzeko azken astean zehar bidalitako galdera guztien artean 4 galdera Bioterrari buruzkoak izan dira.



5 Babeslea

Bioterra Ficoban ospatuko da, noiz zehazki?

Zure erantzuna: Ekainak 6 – 8

 BIOTERRA



Erabiltzaile kopuru totala	40.116
Aste osoan jokautako partidak	216.962
Bannerrak jasotako klikak	851

Aste honetako quiz-aren irabazleentzako sariak Bioterra azokan gozatzeko 100€-ko bi erosketabonu izan dira.

SARE SOZIALAK

Bioterraren sare sozial nagusiak Facebook eta Instagram dira. Jarraian eskaintzen diren datuak maiatzaren 9tik ekainaren 11ra bitarteko epea hartzen dute, jarraitutako estrategiaren eragina ebaluatzeko eta etorkizuneko ekintzak baloratzeko helburuarekin.

Sare sozialen bidezko komunikazioaren helburua Bioterra 2025en ikusgarritasuna handitzea eta publiko zabal eta anitz batera iristea izan da. Halaber, aurreko edizioetako jarraitzaileekin harremana sendotzea bilatu da.

INSTAGRAM



Bioterra

1123 publicaciones4421 seguidores2761 siguiendo

Euskadiko EKO azoka | Feria ECO de Euskadi

Ekainak 6-7-8 Junio 2025

Ficoba

Doako sarrera • Entrada gratuita

FICOPA. Avda Iparralde 43, Irún, Spain

Ver traducción

mtr.bio/bioterra

bioterra.ficoba

Le siguen vanessablazkez, amarenak_oficial y 26 personas más

SiguiendoMensajeContactar


Bioterra 2025

Expos | Era...

Programa

Bioterra 2024

Bioter



LORTUTAKO EMAITZAK

Eragina:	242.011 (+%233)
Ikustaldiak:	481.336 (+%375,7)
Interakzioak:	4.828 (+%365,1)
Estekek jasotako klikak:	1.131 (+%200)
Profilak jaso dituen bisitak:	3.267 (+%452,8)
Jarraitzaile berriak:	461 (+%334,9)
Ikustaldi organikoak:	177.289 (+%406,5)
Iragarkien bidezko ikustaldiak:	304.047 (+%359,4)

Bioterraren Instagram profilak 4.421 jarraitzailera iristea lortu du azoka amaitzerakoan.

Bioterraren jarraitzaileen profil demografikoa nagusiki emakumezkoa da (%81,4), eta adin-tarte nagusia 35 eta 54 urte bitartekoa da. Jatorri geografikoari dagokionez, jarraitzaileen %85 Espainiakoa da, eta jarraitzaileen kokapen nagusien artean nabarmentzekoak dira Donostia, Iruñea, Bilbo, Gasteiz eta Bartzelona hir.

Instagram-ek komunikazio bisual, dinamiko eta emozionala ahalbidetu du. Reels eta istorio laburren formatuek arrakasta izan dute. Gainera, Instagram-ek Bioterrako komunitatearekin lotura maila altua izatea erraztu du.

FACEBOOK



LORTUTAKO EMAITZAK

Eragina:	495.661 (+%1.600)	Facebook orrialdeak jasotako bisitak:	2.022 (+%328,4)
Ikustaldiak:	1.449.679 (+%754,2)	Jarraitzaile berriak:	34 (+%240)
Interakzioak:	1.042 (+%315,1)	Ikustaldi organikoak:	19.881 (+%108,9)
Estekek jasotako klikak:	4.097 (+%875,5)	Iragarkien bidezko ikustaldiak:	1.429.798 (+%792,5)

Bioterraren Facebook orrialdeak 7.736 jarraitzaile lortu ditu.


Jarraitzaileen profil demografikoa nagusiki emakumezkoa eta heldua da. Jatorri geografikoari dagokionez, jarraitzaileen %90 Donostia, Iruñea, Irun eta Bilbo ingurukoak dira.

Argitalpenetan formatu desberdinak erabili dira, eta reels motako bideoek parte-hartze handiena lortu dute.

Gazteengana heltzea da erronka plataforma honetan, baina esan daiteke formatu dinamikoagoek emaitza hobeak ematen dituztela helburu hori lortzeko.



ESKERRIK ASKO !



BIOTERRA
2025